

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onespena ematea udal zerga ordenantzari, zeinak arautzen baitu hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek bide publikoetako lurzoru, lurpe edo lur gaineko espazioaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen tasa

2018ko maiatzaren 14ko ALHAOn (55. zk.) iragarkia argitaratu ondorengo jendaurreko arauzko epean erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onespena ematen zaio hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek bide publikoetako lurzoru, lurpe edo lur gaineko espazioaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egitearen tasa arautzen duen udal zerga ordenantzari. Horiek horrela, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

Hornidura-enpresa ustiatzaileek udalaren bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo lurraireko gaineko aireko espazioaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

1. Udal honek, bat etorritz Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin (41/1989 Foru Araua, uztailaren 19koa), tasak ezartzen eta galdegiten ditu hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalaren bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo lurraireko gaineko aireko espazioaren erabilera pribatua eta aprobetxamendu berezia egiteagatik.

2. Hori dela eta, honako hauek dira hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak:

a) Argindarraren, uraren edo gasaren hornidura egiten duten enpresak.

b) Jendearentzako telekomunikazioak eskaintzen dituzten enpresak, telekomunikazio sare publikoen zati bat edo osorik erabiliz, eta udal bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo lurraireko gaineko aireko espazioa modu pribatiboan erabiltzen dutenak edo horien aprobetxamendu berezia egiten dutenak, sare edo instalazioen titularra gorabehera.

c) Hornidura-zerbitzua eskaintzen duen beste edozein enpresa, baldin eta zerbitzua emateko erabiltzen dituzten hodiak, kableak eta gainerakoak udaleko lurra, lurrazala edo airea okupatzen badute.

3. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituztenak ere sartuko dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

1. Hauxe da zerga gaia: udalerriko bide publikoetako lurrazala, lurpea edo lurraireko gaineko aireko espazioa modu pribatiboan erabiltzea edo horien aprobetxamendu berezia egitea hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde, baldin eta hornidura zerbitzua interes orokorrekoa bada edo auzokide guztiei edo haietako askori eragiten badie.

2. Kuantifikazio araubide hau aurreko artikuluan aipatzen diren enpresei aplikatuko zaie hornidurarako erabiltzen dituzten sareen titularrak izanez gero, eta titularrak ez badira ere bai, baldin eta sareak erabiltzeko, sare horietara sartzeko edo sareen arteko lotura egiteko eskubidea badute.

3. 4. Bateragarriak dira tasa hau eta toki erakundeen eskumen diren zerbitzuak eskaintzeagatik edo jarduerak gauzatzegatik ezar daitezkeen beste tasa batzuk, baldin eta, haietan, hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek, 41/1989 Foru arauaren 32.1 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, subjektu pasibo izan behar badute; kanpoan geratuko da, tasa hau ordainduz gero, udalaren bide publikoetako lurzoruaren, lurpearen edo lurzoruaren gaineko aireko espazioaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia dela-eta eskatzekoak diren beste tasa batzuk.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Pertsona fisikoak eta juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan adierazitako entitateak dira subjektu pasibo zergapekoak, baldin eta hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen titular badira eta hornidura horiek interes orokorrekoak badira edo auzotarren gehiengoari eragiten badiote eta bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo lurraldearen gaineko aireko espazioaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia egiten badute.

2. Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituztenak ere sartuko dira.

3. Administrazio publikoek, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu beharko udalerriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik ez aprobetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduak edo herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

5. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. ZERGA OINARRIA

6. artikulua

1. Hornidura-zerbitzuak ematen dituzten enpresek urtean zenbateko diru sarrera gordinak ateratzen dituzten udalerrian eskuratzen duten fakturaziotik, horren arabera izango da tasaren zerga oinarria.

2. Sarrera gordinak honako hauek izango dira: udalerrian egindako zerbitzuen kontraprestazio gisa entitateak lortutako sarrerak, berari egotzi ahal zaizkionak.

3. Honako hauek ez dira sartuko sarrera gordinetan: egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, eta hirugarrenen kontura kobratzen diren partidak eta kopuruak, udal zerbitzua egiten duen enpresaren beraren sarrerak ez direnak.

4. Hornidura egiteko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek fakturazioko sarrera gordinetatik kendu behar dituzte beste enpresa batzuen sareak erabiltzeagatik ordaintzen dituzten kopuruak. Sareen titularrak diren enpresek beren fakturazioko sarrera gordinetan sartu beharko dituzte kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoak.

5. Zergen Foru Arau Orokorrak 111. artikuluan eta Arabako lurralde historikoko zerga ikuskatzailearen erregelamendua onartzen duen Diputatu Kontseiluaren ekainaren 6ko 41/2006 Foru Dekretuak xedatzen dutenarekin bat etorritz, sareen titularrak diren enpresek eskatzen dien informazio guztia eman beharko diote Udalari beste enpresa batzuek beren sareak erabiltzeagatik jasotako sarrerez.

VI. KUOTA

7. artikulua

1. Zerga kuota udalerrian urtean egindako fakturazioko sarrera gordinen ehuneko 1,5 izango da.

2. Erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren eraginez udalerriko jabari publikoa suntsitzen edo hondatzen bada, onuradunak kalteak konpontzeko gastu guztiak ordaindu beharko ditu, bidezko tasaz gainera, eta horren zenbatekoa aldez aurretik jarri beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte ordaina jasoko du: suntsitutako ondasunen edo hondatutako ondasunei egindako kalteen zenbatekoa.

Udalak ezin izango ditu barkatu idatz zati honetan aipatzen diren kalte ordainak eta itzuli beharreko kopuruak, ez osorik, ez zati bat.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

8. artikulua

1. Udalaren bide publikoetako lurrazala, lurpea edo lurraren gaineko aireko espazioa era pribatuan erabiltzeagatik edo horien aprobetxamendu berezia egiteagatik hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek ordaindu beharreko udalaren jabari publikoa okupatzeagatik tasa sortzen da erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean eta, ondoren, urtero urtarrilaren 1ean.

2. Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoaren erabilera pribatiborako edo aprobetxamendu berezirako eskubidea ematen edo betetzen ez bada, bidezko kopurua itzuli beharko da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRUA SARTZEA

9. artikulua

Udalak dagokion likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa ordaindu beharko da.

IX. TASEN KUDEAKETA

10. artikulua

Hornidura zerbitzuren bat ustiatzen duten enpresek hiruhileko bakoitzeko lehen hamabost egunetan aurkeztu behar dute aurreko hiruhilekoko sarrera gordin guztien aitortpena udal bulegoetan. Aitorpen horrekin batera udalerrian fakturatutakoaren frogagiriak aurkeztu behar dituzte, eta udal administrazioak eskatzen dituen gainerako agiri guztiak ere bai.

X. AZKEN XEDAPENA

Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalaren bide publikoetako lurrazalaren, lurpearen edo lurraren gaineko aireko espazioaren erabilera pribatua edo aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa arautzen duen zerga ordenantza 2018ko maiatzaren 2an onartu zen behin-behinean, eta, nola eta jendaurrean jarrita egon den denboran ez den erreklamaziorik aurkeztu, aditu behar da behin betiko onartuta dela, eta 2018ko ekainaren 15ean sartu zen indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatu edo indargabetzen den arte.

Zalduondo, 2018ko ekainaren 15a

Alkatea

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE